Belen Anabitarte

Unibertsitate Orientaziorako Zerbitzuko kidea

EHUko Unibertsitate Orientaziorako Zerbitzuak prestatu ditu ikastegiak eskainitako kurtsoez aritzeko jardunaldiak; eskolara batuko ei diren ikasleek erruz erantzun diete antolaturiko hitzaldiei



Belen Anabitarte dabil EHUren Leioako campuseko UOZen bulegoa gidatzen. • MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

«Ahaztutako gaia da LOU; ikasleak etsita daude»

Iban Ocio • Leioa

Hiru astez jardun dute EHUn ikasle arituko direnen zalantzak uxatzen UOZ Unibertsitate Orientazio Zerbitzuko beharginek eta ikastegiko orotariko ezagutza alorretako adituek. Hurrengo ikasturtean eskolak eskainiko dituen ikastaroez antolaturiko jardunaldiak amaitu berri dituzte. Belen Anabitarte UOZeko kidearekin hitz egin du EGUNKARIAk, egitasmoaren nondik norako behinenak eta ikasleon gogoeta ohikoenak zein diren jakin nahian.

■ Unibertsitarioen informazio premia asebetetzeko sortu zuten UOZ zerbitzua.

Hezkuntzaren, kulturaren eta enpleguaren gaineko argibideak zabaltzeko. Alabaina, hasi gara ikastegira batuko diren ikasleen aholkulari beharra egiten. Iaz abiarazi zituen EHUk Unibertsitate Orientaziorako Jardunaldiak. Errektoretza arduratzen da eskolak eskainiko dituen lizentziatura eta diplomaturez mintzatuko diren adituak aukeratzeaz. Eta UOZek gidatzen ditu hitzaldiok.

■ Jardunaldi zinez arrakastatsuak izan dira. Ikasleek erruz erantzun diete solasaldiei.

Zientzia zehatzetako eta ingeniaritzetako ikastaroez eginiko hitzaldietan elkartu dira ikasle gehien. Baina gizarte zientzietako ikasketen inguruan antolaturikoetan ere ehun lagun baino gehiago bildu dira, sarri.

■ Ikastaro teknikoenetakoek nahikoa itaun zehatzak airaratzen dituztela goratu duzu.

Ingeriaritzak euren artean zertan ezberdintzen diren itauntzen digute. Edo aurkikuntza teknologikoek medikuntzako ikasketa planak nola eraldatuko dituzten. Gizarte zientzietan arituko diren ikasleak auzi orokorragoez arduratzen dira: zein batxilergotik hel daitezkeen euren gustuko ikastaroetara, horietan aritzeko gutxieneko nota zein den, zenbat leku dauden ikasketa bakoitzean...

■ Galdera bitxiagoei ere erantzun diete eskolako adituek.

Inork irailaren 11ko erasoek informatikarien lana nola itxuraldatuko zuten itaundu zuen. Beste batzuek diplomazialari eta meteorologo bihurtzeko ikasi beharrekoez.

■ LOUri buruzko itaunak, berriz, ezin eskasagoak dira.

Ahaztutako gaia da. Ikasleek hautsak harrotu zituzten. Orain, baina, etsipena nagusitu da; lagunok apenas erreparatzen dieten legeak sor ditzakeen ondorio kaltegarriei.

> «Ikasketak bukatzear dauden unibertsitarioak lan munduan murgiltzeko beldur dira; askotan nahiago dute graduatu ondoko ikastaroa egitea»

■ Gurasoak ere askotan joaten dira hitzaldiotara.

Euren seme-alabek zertan jardungo duten jakin gura dute. Ikastaro berrienek sortzen dute zalantzarik gehien. Psikopedagogia edo Heziketa soziala ikastea otu zaion ikaslearen gurasoek badute buruhausterik: ikastaroon aterabide profesionalak eta ikasleek landuko dituzten irakasgaiak zein dira?

■ Jardunaldiotatik haratago, urte osoan bulegoan zabiltzate beharrean.

Bertaratzen diren ikasleei denetariko infomazioa ematen diegu: alokatzeko pisuak, ikasle egoitzak, ikastegiko taldeak, ekitaldi kulturalak, lehiaketak, bekak, garraioa... Unibertsitatera biltzerako ikasleak albait erosoen ibiltzea hartu dugu helburu.

■ Unibertsitarioen zalantzak ere argitzen dituzue UOZen; graduatu ondoko ikastaroen ingurukoak, batik bat.

Hala da. Ikasketak bukatzear dauden unibertsitarioak lan munduan murgiltzearen beldur dira. Askotan nahiago dute espezialista tituluren edo masterren bati ekitea.

Unibertsitate Orientaziorako zerbitzua:
Bizkaiko campusa: 94 6013159
Gipuzkoako campusa: 943 018256
Arabako campusa: 945 013394

BEKAK

Europako enpresetan jarduteko 335 beka banatu ditu Confebaskek, joan den ikasturtean baino 115 gehiago

Erredakzioa/**Bilbo** • Batik bat Lanbide Heziketako ikasleentzako bekak askotu ditu Confebaskek. Abian den ikasturtean 222 ikaslek jardungo dute Europako enpresetan lan praktikak egiten edo ikasketen amaierako proiektua osatzen. Euskal unibertsitarioentzat, aldiz, 113 beka emango ditu enpresarien elkargoak. Confebaskek, gainera, maisu-maistrentzako diru laguntzak ditu. Tutoreok atzerrian diren ikasleen tokian tokiko jarraipena egitea da helburua.

Leonardo da Vinci hezkuntza programa sortu zuen Confebaskek 1997an; euskal gazteek atzerriko enpresetan lan praktikak egin zitzaten. Eta, sortzetik gaurdaino, urtero-urtero askotu ditu ikasleoi eskainitako bekak. Aurten iaz baino 115 lagun gehiagok jardungo dute Europako Batasuneko enpresetan. Zuzen esanda, Lanbide Heziketako eta unibertsitateko 335 kidek. Urtebetez ariko dira atzerrian, gehienak ingeniaritzari atxikitako enpresetan (besteak beste, elektronika, mekanika, informatika eta telekomunikazioak langai dituztenetan).

Confebaskek banatzen dituen bekek barnean hartzen dute: ikasleak bilduko diren prestakuntza planen diseinua —lan praktikena edo ikasketen amaierako proiektuena— eta hizkuntzaren hobekuntza bermatzeko ikastaroen, ostatuaren eta joan-etorri bidaien finantzaketa. Ikasle bakoitzari emandako diru kopuruak ere gora jo du urterik urte.

Confebaskek, halaber, maisu-maistrentzako beken deialdia egin du 2002-2003 ikasturterako. Atzerrian egonaldia egiteko bekak lortzen dituzten ikasleen jarraipena egingo dute lagunok. Aurten, bost irakasleri eman die Confebaskek egitasmoan jarduteko aukera.

Gerora Euskal Herriko enpresetan jardungo duten profesional gaituak sortzea da ikasleak trukatzeko enpresarien elkargoak prestaturiko programaren xedea. Ikasturtearen amaieran egin ohi du Confebaskek Leonardo da Vinci egitasmoan aritzeko beka deialdia.